

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Asteazkena, 2012ko uztailaren 18a. IX. urtea. 2.386. zenbakia. tolosaldea.info



Lanbideren Tolosako egoitzan egin zuten elkarretaratzea, atzo goizean, Raxoiren gobernuak ezarri nahi dituen murrizketen kontra egiteko. R. CALVO

Asteasuarrek gaur hasiko dituzte Santamañako festak

Auzoko jaietan atsedean eguna izango dute bihar; igandean 'Auzoko desapiyua' izango da Ixidro Erretegiko Taito zaldiaren eta Goiballako giza taldearen artean **05**

Sendagileak ez duela euskara menderatzen dio Amezketako Udalak

Herritarrek arlo publikoko langileekin euskaraz egiteko eskubidea dutela azaldu dio Osakidetzari **04**

Jendartea «txirotu» egingo dela salatzen dute gizarte eragileak

Espainiako Gobernuak iragarritako murrizketen kontra egiteko elkarretaratzea egin dute sindikatuek eta eragileak deituta

Gaur ere protesta egingo dute; 19:00etatik aurrera, Tolosako Trianguloa plazan, elkarretaratze zarzatsua egingo dute **03**



L. TERRADILLOS

→ **Laneta lan.** Aresoko zein Leitzako udalek eta Nafarroako Gobernuak langabezian dauden pertsonak kontratatze ekimena dute abian. Leitzan lau langile hartu dituzte lanerako eta Areson bi (irudian). Diru laguntzak, hala ere, gutxitu egin dira alor honetan ere eta, beraz, aurten beste urteetan baino denbora laburragoan ariko dira lanean. **06**

Sahara laguntzeko Indoor Bizikleta Topaketa, Leitzan

Elkartasuna eta kirola egiteko bilgunea sortzea dira uztailaren 28ko probaren helburuak **06**



Tolosaldea Garatzenek eskualdea ezagutzeko aukera berriak eskaini ditu aurten, turismo esperientzien bidez. Gastronomia oinarri hartuta, bisitariak eurek sortuko dute ezagutu nahi duten hura.

Eskuekin ukitzen den turismoa

Itzea Urkizu Tolosa

Hamaika modutara definitu izan da turismo hitza historian zehar, eta turismoa bera gauzatzeko moduak ere, askotarikoak izan ohi dira.

Tolosan, bertako gastronomia eta landa ingurumena probestuz, turismoa egiteko joera berriak martxan jarri dituzte uda honetan, Turismo Esperientzia deituriko egitasmo berriekin. Batetik, eskualdeko produkturik bereizgarriena den babarrunaren ingurura bertaratzeko helburu duen *Tolosako babarrunaren bidaia, eretietik platerera* programa prestatu du Tolosaldea Garatzen agentziako Turismo sailak. Bide beretik, eta gastronomiaren adar gehiago ukituz, *Tolosa Gourmet, zu zeu chef onena* izeneko bigarren proiektua ere abian da.

Turismo Esperientzia deituriko filosofiaren barruan daude biak ala biak. Turismo arruntak biltzen dituen ezaugarriez gain, parte hartzea sustatzen duen turismoa da honakoa, eta esperientzia gogoangarriak ditu helburu. Bisitariak, oportetara joan eta bisitatu duten hainbat leku berri ikusmenaren bidez ezagutzeaz haratago, fisikoki parte hartu ahal izango dute ezagutu nahi duten kultura eta ohitura horietan; eskuekin uki daitekeen turismoa egin ahal izango dute, beraz, hitz batean.

Tolosako Babarrunaren bidaia

Pasa den ekainaren 10ean hasi zen, *Tolosako Babarrunaren bidaia*, eretietarekin: «Bisitariari lau jardueretan parte hartzea eskaintzen diogu, eta bakarrenean edo denetan parte har dezake».

Horrela beraz, Urkizuko Olateaga Goikoa baserrian, hiru familia aritu ziren babarrun aleen landatzean. Igande honetan, egitasmoaren bigarren saioa egingo dute, leku berean; kasu honetan, zaintzearen atalean parte hartuko dute turistek, eta 10:30etik 16:30era bitarteko egun pasa egingo dute guztiak. Irailaren 23an, berriz, babarrunak biltzeko eguna izango da.

Tolosako Babarrunaren bidaia azaroran amaituko da, laugarren



Hiru familiak parte hartu zuten *Tolosako Babarrunaren bidaia* egitasmoa lehen saioan, aleak eriten. HITZA

saioarekin. Babarrunaren astearen harira, parte hartzaileek txapelketa ikusteko aukera izango dute, eta babarrunak dastatzeko ere bai; era berean, lau saioetan

Babarrunaren hazkuntza prozesu osoa ezagutu ahal izango dute bisitariak

parte hartu dutenek, eurek ereindako, zaindutako eta jasotako babarrunak etxera eman ahal izango dituzte.

Babarrunaren prozesu hau guztia, <http://tolosakobabarruna.blogspot.com.es> blogean jarraitzeko aukera ere izango da.

Azokatik platererako bidea

Gastronomia izango da muina, *Tolosa Gourmet, zu zeu chef onena* turismo eskaintzan ere. Tolosaldea Garatzenek Zerkausi kalean dagoen Sukaltalka Workshop-ekin elkarlanean burututako egitasmoa da honakoa, eta bertako gastronomiaz gain, Tolosan hain esanguratsua den larunbateroko azoka ere erakutsiko diete bisitariak.

Proposamen honen bidez, «turistak nahiz interesa duen edo»

gonbidatu nahi dute antolatzailerik, parte hartzera. Tolosaldea nahiz Euskal Herriko errezeta nabarmenenak prestatuko dituzte, Tolosaldeko sukaldari ezagun batekin.

Larunbat honetan lehen saioa egingo dute, 11:00etatik 15:00etara bitarte, baina saio gehiago aurreikusi dituzte abuztuaren 15, 12 eta 19rako, eta baita irailaren 1, 8 eta 15erako ere.

Sukaldeko lanetan hasi aurretik, Zerkausiko postuetan barrena ibiliko dira, osagaiak bertako baserriarrei erosteko; sukaldariak lehengairik hoberekin aukeratzeko lagunduko diete bisitariak. Azkenik, aipatzeko da Euskal Herria plazako eta Berdura plazako azokak ere bisitatuko dituzte.

Behin erosketak egin eta gero, Sukaltalka tailerrera joango dira, errezetak prestatzea; besteak beste, pintxoak, garaian garaiko barazkiak eta Tolosako babarrunak Ibarroko piperrekin egingo dituzte. Norberak prestatutakoa jateko aukera izango du, eta herriko gozo ezagunekin osatuko dute bazkaria.

Tolosaldea Garatzeneko Turismo sailak antolatutako bi egitasmo hauek, zenbait ezaugarri be-



Sukaltalka Workshop-en prestatuko dituzte Zerkausiko osagaiak. HITZA

reizgarri dituzte arduradunen arabera. Batetik, esperientzia gogoangarriak izan behar dute; bisitariak jardueretan parte hartzea oso garrantzitsua da beren ustez, eta Tolosako Babarrunaren bidaian, bisitariak haziak eriteko aukera izan dute hasiera-hasieratik, prozesu osoan baserriarraren lanaren zati batean parte hartuz. Larunbatean bertan hasiko den turismo eskaintzan ere, bisitariak eurek prestatuko dituzte jakiak.

Bide beretik, turismoa ikasteko bidea izatea ere azpimarratu dute. Adibidez, bisitariak baba-

rrunen hainbat alderdi ezagutu eta ikasteko aukera dute: zein tenperaturetan landatu behar diren, nola zaindu behar diren, nola bildu behar diren...

Azkenik, sozializazioa eta elkarlanean egitea ere turismo esperientziaren oinarrietako batzuk dira, Tolosaldea Garatzeneko antola-

Sukaltalka Workshop tailerlean, Zerkausiko lehengaiak prestatuko dituzte

tzaileren arabera: «Turistek, bertako jendearekin partekatuko dute eguna».

Bi eskaintzen inguruko informazioa eta erreserbak egiteko aukera, Tolosaldea Tour bulegoan izango da, bertara joanda, 943 69 74 13 telefono zenbakira deituta edo tour@tolosaldea.net helbide elektronikora idatzira.

MENDI-ALDE

Eguneko menuak eta karta
Bataioak, Jaunartzeak...

Jatetxea

San Esteban auzoa, 39 • Tel.: 943 65 17 99 • 20400 TOLOSA

Beti Alai
jatetxea

Garaian
garaiko janariak
Arraikietan berezia



943 67 33 81 / 943 67 19 20 • Erremerterri kalea, 16 • 20400 TOLOSA

Inoiz baino IKTko igerilari gehiago, infantil mailako Espainiakoan

I. Garcia Landa

Tolosaldea IKT igeriketa taldekoak gaurtik hilaren 22ra arte Bartzelonako izango dira, Picornell igerilekuan, infantil mailako Espainiako Txapelketan lehiatzeko. Bertan, bederatzi ordezkariz izango ditu taldeak, inoiz baino igerilari kopuru handiagoa. Beñat Bidaola, Nerea Esandi, Ane Gonzalez, Elene Cuadrado, Maialen Mujika, Julen Urretabizkaia, Xabier Beitia, Nerea Rodriguez eta Marina Etxarri izango dira eskualdeko igerilariak. Tolosaldea IKT taldetik azaldu dutenez, «ondo prestatuta eta gogo handiarekin ekingo diote aurtengo azken proba garrantzitsuari».

Berrenplegatze agentzia gisa ari da Tolosaldea Garatzen

I. Garcia Landa

Tolosaldea Garatzen aurten eman da alta garapen agentzia eta berrenplegatze agentzia gisa, eta nahiz eta beti kudeatu dituzten lan eskaintzak, hauek orain bere webgunean jasoko ditu. Horrela, Tolosaldea Garatzenek kudeatutako lan eskaintzak <http://www.tolosaldeagaratzen.net/eu/emplegua/lan-eskaintzak> webgunean aurkitu daitezke. Lan eskaintza batean interesatuta egonez gero CVa posta elektronikoz lan@tolosaldea.net bidali daiteke erreferentzia zenbakia zehaztuz edota pertsonalki bulego-ara joanez.

Eguzkitik babesteko kanpaina, Usabalen

I. Garcia Landa

Gipuzkoako Minbiziaren Aurka-ko Elkarteak eguzkitik babesteko kanpaina martxan jarriko du Tolosako Usabal kiroldegiko igerilekuan, gaur eta bihar, 10:30etik 13:30era. Informazio mahaia jarriko dituzte, prebentzioaren informazioarekin, eta nahi duenari melanina neurtuko zaio dohainik, eguzkitan zenbat denbora egon daitekeen jakiteko.

Energiaren Egunak egitasmoa hiru egunez izango da Tolosan

I. Garcia Landa

Tolosan hiru egunez, gaurtik hasita, izango da Energiaren Egunak egitasmoa, Euskal Herria plazan. Energiaren Euskal Erakundeak (EEE) antolatuta du eta bost atalez osaturik egongo da: informazio puntu bat, EEEn munduan sartzeko aukera emango duten *ipad* batzuekin hornituriko terraza bat eta auto hibrido zein elektrikoaren erakusketa bat. Horrez gain, gaztetxoek auto elektrikoaren eta bizikletaren bi zirkuitu izango dituzte, baita *Desio-en hodeia* deituriko lego erraldoi bat ere, non hala nahi duenak desio berritagarri bat gehitu ahal izango duen. 11:00etan irekiko ditu ateak eta 20:00etan itxiko da.

Bestalde, gidatze eraginkorrerako ikastaroa doan emango da, egitasmoaren barruan, 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara. Izena www.energiarenegunak.com helbidean edo Tolosako Udaleko Ingurumen sailera deituta, 943 69 75 21 telefono zenbakian, eman daiteke.

Tolosan egon eta gero, egitasmoa Amezketara abiatuko da. Egitasmoak, Alkateen Itunaren helburuen berri emateaz gainera, herritarrek aurreztera kontzientziatu nahi dituzten energia-eraginkortasunera bultzatuz.

Sanjoanetako promozio zozketaren sari nagusia, 34.361 zenbakiarentzat

R. Calvo Tolosa

Tolosa&Co merkatarien elkarteak atzo eguerdian egin zuen sanjoanetako promozio zozketa. Lehen saria (1.000 euroko erosketa txartela) Bolsos Zunzu dendan banatutako 34.361 zenbakidunak irabazi du. Bigarren saria (500 euroko erosketa txartela) Boutique Imagen-en banatutako 42.059 zenbakidunak, eta hirugarrena (250 euroko erosketa txartela) Nik-Hi dendan banatutako 17.527 zenbakidunak.

Sariak Tolosa&Co elkarte kide diren saltokietan erabili daitezke, eta irabazleek txartelak elkartearen egoitzan (Emeterio Arrese, 2) aurkeztu beharko dituzte abuztuaren 1eko 14:00ak baino lehen.



Lanbideek Tolosan duen egoitzaren aurrean egin zuten, atzo, elkarretaratzea. R. CALVO

Sindikatuak eta hainbat gizarte eragile murrizketen aurka elkartu dira

Tolosako Trianguloa plazan gaur egingo den elkarretaratze zaratatsuan parte hartzeko deia egin dute

Imanol Garcia Landa

Espainiako Gobernuak iragarri dituen murrizketen aurkako elkarretaratzea egin zuten atzo, sindikatuak eta hainbat gizarte eragilek Lanbidek Tolosan duen egoitzaren aurrean, *Bankarentzat dirua, herritarrontzat pobrezia, murrizketarik ez* lelopean. Raxoiren gobernuak «azken urte-etako murrizketa sozialik handiena» iragarri duela esan dute elkarretaratzea deitu dutenek: «Herritar gehienon diru sarrerak txikitzea dakar, langabezia dauen pertsonen sariak, pentsioak, menpekotasuneko prestazioak eta administrazio publikoetako langileen soldatak murriztuko direlako». Bestalde, eragileek salatu dutenez, «erosten ditugun produktuak garestituko duen BEZa igotzea onartzen da eta, aldiz, enpresen etekinak handitzeko helburuz kotizazio sozialen beherapena».

Era berean, herritarrei dirua kentzen ari zaiela bankari emateko salatu dute sindikatuak eta gizarte eragileek: «Gobernuak era-

baki du bankari 100.000 milioi euro emango diola, bere zuloak estali ditzan. Honetarako badago dirurik. Politika hau bigegabea eta moralgabea da eta horregatik errefusatu egiten dugu».

Politika horiek «gizarte oro har txirotu» egiten dutela diote elkarretaratzea egin dutenek: «Atzeraldia larriagotzen dute langabezia handituz, babes soziala murriztuz eta geroz eta jende gehiagok hilaren azkenera iristeko arazoak izan ditzan eraginez». Murrizketekin «krisiaren sorrerarekin zerikusirik izan ez dutenei» ordinaraziko zaiela gaineratu dute.

«Manipulazioa eta gezurrak»

Espainiako Gobernuak ezarri nahi dituen politikak «manipulazio eta gezurretan» oinarritzen direla salatu dute: «Espainiako Gobernuak asteak daramatza bere benetako asmoak ezkatutuz, sasi informazioak zabalduz eta egia esan gabe Bruselan negoziatzen ari zenaz. Bere helburua haxe izan da: jendea prestatu espoliazio hau ezinbestekotzat jo dezan».

Errentaren «eskualdaketa itzela» ematen ari dela salatu dute: «Gutxi batzuen eskuetara bideratzen ari da errenta. Arpilatze honek aginte politikoa, ekonomikoa eta finantzieroa ados jartzearen eskutik dator».

Sindikatuak eta gizarte eragileek «alternatiba errealek» daudela esan dute: «Borondate politikoa izanez gero, bestelako neurriak aplikatu daitezke». Zergen zein politika sozialen aldaketa egin behar dela aldarrikatu dute eta dei egin die Hego Euskal Herriko erakundeei murrizketak ez aplikatzeko, eta Espainiako Gobernuari murrizketak bertan behera uzteko.

Gaurko elkarretaratze zaratatsua deitu dute. Tolosan izango da, 19:00etan, Trianguloa plazan, eta herritarrei bertan parte hartzeko deia egin diete.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Amezketako medikuak euskara ez duela erabat menderatzen salatu dute

Amezketako Udalak Osakidetzari gutuna igorri dio herriko osasun etxean duten arazoaren berri emateko

Enertiz Maiz Amezketak

Amezketako Udalak, beste behin, herrira joaten den medikuak euskara ez duela behar bezala menderatzen salatu du. Egoeraren berri eman eta sendagile euskalduna behar dutela eskatzeko gutuna bidali diote Osakidetzari.

Udalak adierazi duenez, herritarren bidez jakin du herriko kontsultategian euskaraz hitz egiteko nahikoa gaitasun ez duen medikua ari dela lanean. Baina kontua ez da berria, «pasa den neguan ere arazo bera izan genuen», adierazi dute udaletik. «Honek ez du bat egiten Amezketako Udalak herritarrek euskaraz bizitzearen alde egin duen apustu estrategikoarekin», azaldu dute.

«Euskaraz bizitzea eta, horren ondorioz, osasungintza publikoko langileekiko hartu-emanetan euskara erabiltzea, aukera ez ezik, babestu beharreko eskubi-dea ere bada», nabarmendu nahi du Iñaki Amundarain Amezketako alkateak. Guzti honengatik, Osakidetza arduradunetara honako hau ekarri die gogora: «1979ko Autonomia Estatutuak aitortzen duenez, Euskal Autonomia Erki-degoan euskara berezko hizkuntza ez ezik hizkuntza ofiziala ere bada». Eta «ofizialtasunak hizkuntza eskubideak aitortzen diz-



Alegiako osasun etxean dute amezketarrek zerbitzu osatua. E. MAIZ

kie euskaldunetara, eta baita amezketarrei ere; esate baterako, administrazioarekin euskaraz jarduteko eskubidea dute», gaineratu du.

UEMAko kide, 2008tik

Egoera honen aurrean, Osakidetza bidalitako gutunean gogora ekarri diote Amezketako Udala Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko kide dela 2008ko abendutik: «UEMAren helburu nagusia bizitza soziala euskaraz egin ahal izatea da, eta helburu horrek administrazioarekiko hartu-emanen ere aintzat hartzen du. Hainbat esparrutan neurriak hartu ditugu euskaldunen hizkuntza eskubideak errespetatzeko: merkataritzan, udal jardueran...».

Bestetik, Amezketako Udaleko osoko bilkurak 2008ko apirilaren 29an, Osakidetza lanpostu publikoaren deialdiaren harira mo-

zioa onartu zuela nabarmendu dute.

Mozioaren bosgarren puntuan, honako hau dago jasota: «Amezketako Udalak euskaraz bizitzea nahia eta premia aldarrikatzen ditu berriro ere, eta udalerririk euskalduna izatearekin zintzo eta koherente jokatzeko aldera, Osakidetza irrimo eskatzen dio gure herritarrei osasun zerbitzua eman dieten langile orok euskaldunak izan behar dutela eta hori betetzeko eskura dituen neurri guztiak har ditzala».

Hau guzti kontuan hartuta, eta herritarren kezarekin bat eginez, Amezketako Udalak, 2008ko apirilaren 29an osoko bilkurak onartutakoa betetzeko eskatu dio: «Aurrerantzean herriko kontsultategian aritu beharreko langileak euskaldunak izan daitezten, eta herriko euskaldunen hizkuntza eskubideak urratu ez daitezten».

Udalak emaitza onenak lortzen dituen hondakin bilketaren alde egingo du

Ekaineko osoko bilkuran zero zabor politikarantz abiatuko direla adostu zuten; ikastaroekin hasi dira

E. Maiz Amezketak

Amezketako Udalak ekainean egindako osoko bilkuran hondakin gaia jorratu zuen. Amezketako airea, mendiak eta errekek garbiak nahi dituztela eta, hondakin arazoari muinetatik helduko diotela erabaki zuten.

«Amezketarrok hondakinak murrizketari ekin behar diogu le-

henik, aukera handiak ditugu inora bidali gabe gure herrian sortzen dugun hondakin organikoak gure etxeetan eta gure herrian tratatzeko», adierazi dute. Era berean, «berrerabiltzearen eta birziklatzearen aldeko urratsak ere eraginkorrago egiteko erabakiak hartuko ditugu», gaineratu zuten. «Amezketan gauzak ongi egiten dakizkigulako zero zabor politikarantz abiatuko gara. Pauso txiki batekin emaitza ezin hobetoak lortuko ditugu», diote.

Udalak ahalik eta hondakin gutxienez sartzeko eta bilketa sarean ez sartzeko, hondakin organikoak etxeko konpostaje edo auzo kon-

postaje bidez kudeatuko du. Eta mankomunitatearekin batera herriko familien artean konpostaje kanpaina zabala egitea adostuko du. Udalak ahalik eta gehien birziklatze aldera, emaitza onenak lortzen dituen hiri hondakin bilketaren alde egiteko konpromisoa hartu du, eta mankomunitatearekin batera bilketa eraginkor eta bideragarria adosteko bidea egingo du, lantaldea sortuz.

Udalak «etengabeko urratsak emango ditu Amezketako zero zabor lurralde bihurtzeko bidean». Dagoeneko autokonpostaje ikastaroekin hasi dira, eta atzo 50 familiak egin zuten, eta larumbatean beste hainbestek egingo dute.

Bidegoiango herri ostatua alokairuan hartzeko aukera dago

Proposamenak hilaren 27a baino lehen aurkeztu behar dira, udaletxean

E. Maiz Bidegoian

Bidegoiango Udalak herriko ostatua errentara atera du. Ustiapenaren lehiaketa esleitzeko prozedurari hasiera eman dio, eta dagoeneko oinarriak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu dituzte.

Ostatuaren kudeaketan interesa duen edonor aurkeztu daiteke, eta interesatuek dokumentazio edota informazio guztia idazkartzan jaso dezakete. 943 68 11 09 telefono zenbakira deituz edota *bidegoian@udal.gipuzkoa.net* hel-



Herri ostata. HITZA

bide elektronikoko bidez ere jarri daitezke harremanetan.

Eskaintzak aurkezteko epea, berriz, hilaren 27an, ostiralean bukatuko da. Esleipendunari bost urteko kontratua egingo diote, eta hileko errenta 300 eurokoa izango da eta horri beza gehitu beharko zaio.

• alegialdea@hitza.info

Irudia > Alegia



ASTEBURU PASA MENDIAN

Uda ondo hasteko eta San Fermin asteburua alde batera utzita, Alegiako Mendi Asanbladak irteera egin zuen Belagua aldera. Bi egun pasa zituzten elkarrekin, eta hogeita hiru lagun elkartu ziren guztira. Lehen egunean, Linza eta Belagua arteko bidea egin zuten, eta bigarren egunean, berriz, Belagua eta Larrun mendia lotu zituzten. Adin guztietako jendea elkartu bazen ere, lagun artean egin zuten irteera. Eguraldia ere lagun izan zuten. HITZA

Tranpazuloren igoerarekin hasiko dira Asteasuko Santamañako jaiak, gaur

Ostiraleko herri afarira joateko aurrez eman behar da izena, eta horretarako epea gaur amaituko da

Asier Imaz Asteasu

Asteasuko Santamaña auzoan gaur goizean hasiko dira jaiak, Tranpazuloren igoerarekin. Ondoren etorriko da txupinazoa, hamaiketako eta gazteen arteko herri kirol probak. Lehen egun hau, bertsolariak eta trikitilariak osatuko dute.

Jaien bigarren eguna ez da osteguneko izango, festek egun horretan atsedean hartuko baitute. Hilaren 20ean, ostiralean, 21:00etan jarraituko du jaiak, herri afariarekin. Bertara joan nahi dutenek izena aurrez eman beharra daukate, eta horretarako epea gaur amaituko da. Afarian parte hartu nahi dutenek 630 10 44 09 edo 686 78 82 60 telefono zenbakira deitu beharko dute.

'Auzoko desapiyua'

Santamañen azken egunean, hilaren 22an, *Auzoko desapiyua* ikusteko aukera egongo da. 18:00etatik aurrera, Taito zaldia

Goiballako giza taldearen aurka ariko da lehian. Ixidro Ertegegiko zaldiak, 15 minutuko saioa egingo du 700 kiloko harriarekin eta 200 kiloko gainkargarekin. Ondoren, giza taldearen txanda izango da. Hauek 20 minutuko saioa egin beharko dute, 700 kiloko harriarekin eta gainkargarik gabe. Plaza gehien ematen dituenak irabaziko du *Auzoko desapiyua*. Aurrez, aizkolariak eta Aimar Irigoien harrijasotzailea ariko dira lanean.

Santa Marinaren omenezko jaiak Santamaña elkartean, Goiballako bizilagunen eta Asteasuko Udaleko Festa Batzordearen artean antolatu dituzte.

↓ Egitaraua

HILAK 18, GAUR

- **10:30ean.** Festen hasiera. Tranpazuloren igoera eta txupinazoa.
- **11:00etan.** Meza nagusia.
- **Ondoren.** Hamaiketako.
- **13:00etan.** Herri kirolak, herriko gazteen artean.
- **Ondoren.** Irazu eta Peñagari-kano bertsolariak eta Izer, Narbaiza eta Lutxurdio trikitilariak.
- **17:30ean.** Kalejira.
- **Gauean.** Izer, Narbaiza eta Lutxurdio trikitilariak.
- **Goizaldean.** Txokolate jatea.

HILAK 20, ETZI

- **21:00etan.** Herri afaria.
- **Gauean.** Laja II eta Narbaiza trikitilariak.

HILAK 21, LARUNBATA

- **16:00etan.** Santamañako XXVII. Mus Txapelketa.
- **16:30ean.** Haur jolasak.
- **Ondoren.** Toka Txapelketa.
- **Gauean.** Laja eta Lutxurdio trikitilariak.

HILAK 22, IGANDEA

- **10:00etan.** Andazarrateko XXVIII. Igoera, federatu gabeko txirrindularientzat.
- **11:30ean.** Meza nagusia.
- **Ondoren.** Herri kirolak: Olasagasti eta Otaegi aizkolariak eta Aimar Irigoien harrijasotzailea, Astiasaran, Izer eta Lutxurdio trikitilariak.
- **18:00etan.** *Auzoko desapiyua*: Ixidro Ertegegiko Taito zaldia Goiballako giza taldearen aurka.
- **Afari aurretik.** Tranpazuloren jaietsiera.
- **Gauean.** Astiasaran, Izer eta Lutxurdio trikitilari taldea.

Adunako Transernio Txapelketako finalak, geroz eta hurbilago

Herriko pilotariak federatueta jauzi egiteko aukera izango dute, Txulobi elkartearen eskutik

A. Imaz Aduna

Adunako Transernio Pilota Txapelketa aurrera doan bezala, herriko jaiak gero eta hurbilago daude, eta hauekin batera, txapelketaren finalak iritsiko dira Andra Mariren inguruan. Asteburuz asteburu, bikoteak bakan-duz doaz, eta onenek jarraitzen dute aurrera. Iragan asteburuan bezala, larunbat eta igande honetan partida ugari jokatuko dira Adunako frontoian, 10:30etik aurrera. Andra Mari jaietarako dena prest egotea da antolatzaileen helburua.

Txulobi elkartearen babesa

Transernio Txapelketa herriko pilota eskolako gurasoek antolatzen dute, eta noski, jokoan izaten dira herriko pilotari gazteenak. Eskola mailako pilotari adunarekin, adinean aurrera egiten duten heinean, herritik kanpora joan behar izaten dira, federatu eta maila horretako txapelketak jokatu ahal izateko.

Adunako Txulobi elkarteak hutsune hori sumatu eta konpontzea erabaki du. Horrela, pilotari gaztetxoek federatzeko aukera emango die Txulobik, pilota eskolarekin eta herriarekin lotura gal ez dezaten.

↓ Partidak

Iragan asteburuko emaitzak

KADETEAK		
Andoain-Hernani	21-22	
Zabala-Golkoetxea (Intxurre)	20	
Zabala anaia (Amezketak)	22	
Añorga-Lasarte	1-22	

ALEBINAK		
Murua-Olano (Intxurre)	7	
Andoain	16	

BENJAMINAK		
Gorostidi-Ugartemendia (Zizurkil)	6	
Artola-Zubeldia (Amezketak)	16	
Iraeta-Altuna (Aurrera Saiaz)	16	
Andoain	11	

INFANTILAK		
Arruti-Irazustabarrena (Intxurre)	4	
Andoain	18	
Zubeldia-Pagola (Aduna)	2	
Hernani	18	

Asteburu honetako partidak

Hilak 21, larunbata, 10:30ean



Transernio Pilota Txapelketako partida, Adunako frontoian. I.G.L.

ALEBINAK	Zabala-Ugartemendia (Zizurkil)
	Olaetxea-Zubeldia (Amezketak)
	Andoain-Zizurkil (Lasa-Gorostidi)

KADETEAK	Urdanpilleta-Aburuza (Aurrera Saiaz)
	Andoain

Hilak 22, igandea, 10:30ean

BENJAMINAK	Perurena-Aizpurua (Zizurkil)
	Añorga
	Aburuza-Olasagasti (Aduna)
	Alkiza

ALEBINAK	Olasagasti-Eraso (Aduna)
	Añorga

INFANTILAK	Ezeiza-Gorostidi (Zizurkil)
	Mujika-Murua (Aduna)
	Altuna-Aizpitarte (Intxurre)
	Usurbil

Laskibarrera joango dira, gaur, Irurako haurrak

A. Imaz Irura

Irurako erretiratuen elkartetik haurrentzako ekitaldi ederra antolatu dute gaur arratsalderako. Jubilatuen esanetan, «giro ederra» egongo da 17:00etatik aurrera Iruran. Adinekoek txikienak eskutik hartu eta herrian barrena itzulia egingo dute. Plazatik atera eta Laskibarrera joango

dira lehenik, 2001 eta 2009 bitartean, biak barne, jaiotako haurrekin. Itzulia eman ostean, plazan merienda egingo dute, jolas giroan. Eguna, ordea, ez da hor amaituko, izan ere, ibilaldian parte hartu duten haur guztientzat sariak banatuko dituzte ondoren.

Erretiratuen elkartetik herriko haur guztiak gonbidatu dituzte arratsalde pasara.

'Gazta zati bat' filma izango da ikusgai Areson, Ibarren eta Berastegin

Jon Maiak zuzenduriko lana bihar izango da Ibarren, etzi Areson, eta igandean Berastegin

I. Terradillos

Jon Maiak zuzenduriko *Gazta zati bat* dokumentala ikusteko aukera izango da aste honetan Areson, Berastegin eta Ibarren. Etzi emango dute Areson, 21:00etan, udaletxean. Berastegin, igandean, hilaren 22an izango da ikusgai, 19:00etan, aparkaleku azpiko lokalean; eta, Ibarren,

berri, bihar izango da, San Bartolome plazan, aire librean, 22:15ean hasita.

Idiazabalgo Nazioen Mundua herri ekimenak sortu eta Maia bertsolariak zuzenduriko dokumentala da. Euskal gaztazkaren gaia era berritzailean aurkezten du, gertakizun handien hurbileko begirada eskainiz, historia handia letra txikiarekin kontatuz, gertutasunez, intimismoz, umorez... Giza faktorea azpimarratzen du eta historiaren eta albisteen kronika estereotipoetatik aldentzen da. Munduan bere gaztagatik ezaguna den Euskal Herriko herri txiki batean abiatzen da istorioa.

Garbiketa egingo dute larunbatean auzolanean, Areson eta Leaburun

Areson Matxain erreka garbituko dute, eta Leaburun, berriz, baserri bideak txukundu asmo dituzte

I. Terradillos

Bai Areson baita Leaburun ere garbiketarako egiten ariko dira herrietarrek auzolanean larunbat honetan. Bateko eta besteko udaletik herrietarrek animatu dituzte herria guztien artean txukuntzeko parte hartzera.

Aresoren kasuan, Matxain erreka garbitu asmo dute. Udalak

auzolanerako prest daudenei udaltxeko bulegotik edo Sastineatik pasatzeko eskatu die, istripu aseguria egiteko. Larunbatean 08:30ean jarri dute hitzordua, herriko plazan. Ahal duenak traktorea ematea ere eskatu dute, eta errekan ibiltzeko arropa aproposak eramatea gomendatu dute.

Leaburun, bestalde, baserri bideak garbitzen egongo dira larunbat goizean. Norbaitek erregaia erabiltzen duen tresneria emango balu, udalak jarriko luke erregaia. Behin garbiketarako burututa, auzolanerako bildu diren herrietar guztiak bazkarian bilduko dira. Udalaren esku izango da bazkaria, eskerrak emateko.

Kirola eta elkartasuna uztartuko dituzte Leitzako Indoor Bizikleta Topaketan

Sahararrei laguntzeko baliatuko dute jasotzen duten dirua; hilaren 24a baino lehen eman behar da izena

Iñigo Terradillos Leitza

Saharar Herriarekiko Elkartasun taldeak antolatuta eta Leitza, Villabona eta Asteasuko kiroldegia eta Leitzako Udalak babestuta, Indoor Bizikleta Topaketa egingo dute Leitzan estreinakoz. Datorren larunbatean izango da, hilaren 28an, arratsaldean, Leitzako plazan, 16:00etan hasita.

Bi helburu ditu ekimenak. Bata, kirola egiteko helburuarekin jendea elkartzea. Eta, bestea, elkartasunezkoa. Izan ere, ekimenean biltzen duten dirua urtean zehar sahararrak laguntzeko helburuz antolatzen diren ekitaldiak egiteko erabiliko da.



35 minutuko lau saio izango dira. HITZA

Parte hartzeko aukerak

Denera lau saio izango dira, eta saio bakoitzak 35 minutuko iraupena izango du. Parte hartzaileek aukeratu ahaliko dute saio bakarrean parte hartu, bitan, hirutan edo lautan. Hain justu, prezioa horren araberakoa izango da: saio bakarrean parte hartzeaga-

tik, 10 euro ordaindu beharko da; bitan parte hartzeko 12 euro, hirutan 14 euro eta lautan, 16 euro.

Izena eman nahi duenak 649 552 368 (Jabier) zenbakira deitu beharko du, eta datorren asteartean, hilaren 24a baino lehen egin beharko da. Proba egin ahal izateko gutxienez kopuru bat jarri

dute antolatzaileek, eta horretara iristen ez badira egunez aldatzeko aukera egon daitekeela adierazi dute.

Saharar Herriarekiko Elkartasun taldeak herrietar guztiak gonbidatu eta animatu dituzte parte hartzera.

• leitza@hitza.info

Irudia o Leitza



SALKHE ETA GALIA LEITZAN DIRA

Oporrak Bakean ekimenaren barruan iritsi dira Letzara Salkhe eta Galia sahararrak. 8 eta 11 urte dituzte ahizpak dira eta estreinakoz irten dira euren bizilekua diren saharar errefuxiatuen kanpalekuetatik. Abuztuaren 28ra arte egongo dira Lei-

tzako familiekin. Egun hori iritsi bitarte ekitaldi ugari gozatzeko aukera izango dute. Horietako bat, esaterako, etzi egingo duten irteera. Hain zuzen ere, Nafarroara etorritako saharar guztiak Senda Viva parkera joango dira egun pasa. HITZA

BIDANIKO HERRI OSTATUA ERRENTAN

ALOKAIRUA:
HILEAN 300 EURO + BEZ
5 URTEKO KONTRATUA

IZEN EMATEKO EPEA:
UZTAILAREN 27a

BIDEGOINGO UDAL BULEGOETARA DEITUZ: 943 68 11 09



**Hoteleko zuzendari
Jatetxeko zuzendari
Maitre
(Lekeitio eta Deba)**

Hotelen kate bat da Aisia Hoteles (www.aisia.hoteles.com). Talde horretan daude bilduta, merkaturian itzalki eta hazkunderik handieneko hainbat hotel eta jatetxe; hamabi establezimendu, guztira.

Hoteleko zuzendari, jatetxeko zuzendari eta maitre postuak betetzeko asmoz, Lekeitio eta Debako Aisia hoteletan, sektorean goi mailako prestakuntza duten pertsonak behar dituzte, gutxienez lau urteko eskarmentua dutenak ostalaritza eta jatetxe enpresetako ardura postuetan. Aintzakotzat hartuko da hainbat hizkuntza jakitea.

Postu horietakoren batean interesik izanez gero, bidali zure curriculumarekin helbide elektronikoa honetara: rrhh@aisiahoteles.com

Leitzan lau pertsona eta Areson beste bi hartu dituzte lanerako Nafarroako Gobernuarekin elkarlanean, herri lanak egiteko; herria txukun mantentzea izango da euren egiteko nagusia.

Epe baterako irtenbidea

Iñigo Terradillos

Krisiaren eta murrizketen garai honetan oso zail bilakatu da lana topatzea. Finko izateak garai batean zuen garrantzia edo lehentasuna izateari utzi, eta herriarrak langabeziko zerrendetan ez egote hutsagatik zortedun direla esan daiteke. Zerrenda horretatik atera berri dira sei lagun Leitzan eta Areson, bi udalek eta Nafarroako Gobernuak elkarlanean buruturiko ekimenari esker. Hilabete batzuk besterik izango ez diren arren, «oso gustura» daude, askorentzat «arnasa hartzea» esan nahi baitu aukera honek.

Nafarroako Gobernuak enplegu zerbitzuak epe baterako gizarate alorrera bideratutako kontratatzeak egiteko diru laguntzen deialdia luzatzen du uda iristear denean. Areson eta Leitzan diru laguntza hori baliatu, eta sei lagun kontratatu dituzte. Ur Algero Aresoko alkateak azaltzen duenez, «herriarrek baldintza zehatz batzuk bete behar dituzte lan hauetarako aukeratuak ahal izateko, 30 urtetik beherakoa izatea, 50 urtetik gorakoa edota diru laguntza bat jasotzen egotea, esaterako».

Baldintza horien iragazkia gainditu eta gero herriarrek eskara maila egokia dutela frogatu eta azterketa teorikoa eta praktikoa gainditzea izan da hurrengo pausoa. Azkenean, bi lagun izan dira hautatuak Areson lan egiteko, eta lau, Leitzan aritzeko. Lau hilabete inguru ariko dira herri lanak egiten, hau da, mendiak, kaleak, bideak eta ubideak garbitzen, festetarako oinarriko azpiegiturak muntatzen, eta oro har, herria txukun mantentzen.

Aresoko alkatearen esanetan, «oso ongi dago diru laguntza hau, lana topatzeko zailtasunak dauz-



Joxe Martin Onsalo aresoarra eta Jon Arantzeta leitzarra, Aresoko industrialde inguruan lanean. IT.

katen herritarrei laguntzeko bidea baita». Era berean, herriar dauden beharrak betetzeko ere «oso garrantzitsua» dela dio. «Langile hauek ez bagenitu ezin genuke beraiek egiten duten lana egin, ez dugulako horretarako aukerarik». Hori bai, helburu honetara bideratutako diru laguntza hau ondo dagoela dioen arren, «eskasa» dela onartzen du: «Diru laguntzak gutxitu egin dira alor guztietan eta honetan ere bai, eta ondorioz, aurten beste urteetan baino epe laburragoan ariko dira lanean».

Lanean, etxetik gertu

Joxe Martin Onsalo aresoarra eta Leitzan bizi den Jon Arantzeta arrasatearra dira oraintxu herri lanetan hasi diren sei lagunetatik bi. «Oso gustura» hartu zuten biek lanean hasteko aukeratuak izan zireneko albisteak. Joxe Martin Onsalo 48 urte ditu, eta berak

dioen moduan, «herrian bertan lan egitea pozgarria da». Berarentzat ez da herri lanetan ariko den lehendabiziko aldia. «Laugarren

Lana topatzeko zailtasuna dutenei zuzendutako diru laguntza da

Kontratatzeak aurten laburragoak dira, diru laguntzak murriztu egin direlako

aldiz ariko naiz udalak hartuta lan mota hauek egiten». Martxo-ra arte lanean egon zen Onsalo, baina ordutik langabezian zegoen lanik topatu ezinik: «Lekuberriko fundizioan egiten nuen nik lan, baina lana jaitsi zela arrazoituta, langile ugari kaleratu zituzten, eta ni izan nintzen horietako

bat; ordutik, tarteka, hilabete batzuetan egin ditut herriko lanak, eta azken kontratua martxoan amaitzen zenez, ordutik langabezian nengoen».

Jon Arantzetaarentzat, berriz, estreinako aldia da horrelako lan batean. «Arrasateko udaletxean zuhaitz eta landareen inbentarioa egiteko kontratatu ninduten, baina herri lanetan ez naiz inoiz aritu», dio. Arantzeta 28 urte ditu eta basogintzako ingeniari teknikoa da ikasketez, baina bere alorrean lanik topatu ezin eta hainbat fabriketan egin du lan. Pasa den urtetik zegoen langabezian, beraz, «oso pozik» dago iritsi zaien aukera honekin.

Hilabete batzuetako lana dutelarik, gustura daude herritar hauek. Kontratu amaitzean, ordea, lehengora itzuliko dira, eskualdean eta Euskal Herri osoan milaka lagunek bizi duten egoera gogorrera, alegia.

→ Laburrak

Historialarien biltzarrean parte hartzeko aukera

LEITZA ▶ Nabaraldeko antolatuta, Euskal Herriko Historialarien III. Biltzarra egingo dute, irailaren 7tik 16ra. Arrasaten, Leitzan, Agoitzen eta Iruñean izango dira saioak. Leitzako saioan soilik (20 euro) parte hartzeko aukera dago, edota biltzar osoan (60 euro). Izena eman daiteke alke@leitzakultura.net helbidean edo 686 906 144 (Juan Mari Barriola) zenbakian.

Alurr Dantza Eskolan matrikulazioa zabalik

IBARRA ▶ Alurr Dantza Eskolan datorren ikasturterako izena emateko aukera dago, iraila bitarte. Matrikulazio orria eta dantza eskolako ordutegiak Ibarako kultur etxean eta Alurr dantza taldearen bulegoan (Arantzazu kaleko 4. zenbakian) eskura daitezke. Argibide gehiago nahi duenak www.alurr.net webgunera jo dezake, edo bestela Alurr taldearen telefono zenbakira (635 75 70 48) hots egin.

Lantalde guztien bilera egingo dute, gaur

IBARRA ▶ San Bartolome jaietako antolaketa lanekin jarraitzeko, gaur, 19:00etan, bilera egingo dute, udaletxeko batzar aretoan. Lantalde guztiez osatutako festa batzordearen bilkura orokorra izango da, eta herriko elkarteek eta lantaldeetan parte hartu nahi duen herriar orori egiten zaio gonbita.

Salontzoetako herri afarirako txartelak salgai

BERASTEGI ▶ Abuztuaren 9an San Lorenzo jaien barruan herri afaria egingo dute Berastegin. Bertarako txartelak Urepele eta Basurde elkarteetan, Zelai tabernan eta udaletxean daude eskuragarri.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.M.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info
Leitza: 687 410 118. leitza@hitza.info

**Tolosa Herria
Hedabideak**

**BERTAKO
SM-ko kideak:**



**Galtzaundi
euskara
taldea**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. **Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezket, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Irura, Larraul, Leitza, Lizartza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agenda

DEIALDIAK

- **Irura.** Erretiroa hartuta dau den irurarrek «herriko haurrei giro polita jarri asmoz» hainbat ekitaldi antolatuzko asmoa dute, lehenengoa gaur egingo dutelarik. Irura-Laskibar ibilaldia egingo dute 17:00etan plazaatik abiatuta. Irteera 2001 eta 2009 urteen artean (biak barne) jaiotako haurrei zuzenduta dago, eta ondoren merienda emango diete, eta sariak banatuko dituzte parte hartzaile guztien artean.
- **Ibarra.** Festa batzordearen bilera orokorra, gaur. Lantalde guztiei egin diete dei 19:00etan udaletxeko batzar aretora azalaztera.
- **Tolosa.** Eusko Jaurkitzak antolatutako *Energia eguna, zurekin bai!* kanpaina Euskal Herria plazan izango da gaurtik ostirala bitarte, 11:00etatik 20:00etara.
- **Tolosa.** Minbiziaren Aurkako Elkarteak informazio mahaiak jarriko ditu Usabal kiroldegiko igarilekuan gaur eta bihar, 10:30etik 13:30era.
- **Ibarra.** *Zergatik ez* kuadrillak du, aurten, Kuadrilla Eguneko bazkaria antolatzeko ardura, eta jakinarazi duenez, txartelak

honako egunetan erosi ahal izango dira: bihar, hilak 19, eta hilaren 26an, batetik; eta abuztuaren 2an eta 9an, bestetik. 19:00etatik 21:00etara erosi ahal izango dira txartelak plazan, 24 euroan. Txartela egunean bertan eskuratu nahi duenak 40 euro ordaindu beharko ditu eta bereizirik jarritako mahaietan bazkaldu beharko du.

■ **Tolosaldea.** Lehiberrik hiru programa antolatu ditu: *Cheque+innova*, *Legescan* eta *Es-koscan*. Enpresei zuzendutako ikastaroak dira, eta izena emateko Tolosaldea Garatzeneko Enpresa sailarekin jarri behar da harremanetan (943 65 45 01 telefono zenbakian edo *enpresa@tolosaldea.net* helbidean).

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Tolosa, M.I. Kale Nagusia, 7. Telefonoa: 943 67 06 48.
- **Lekunberri.** Mendia, M.I. Aralar kalea, 25. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

Irudia Tolosa



ALPINO UZTURREKOAK PIRINIOETAN

Tolosako Alpino Uzturre elkarteak kideak urteroko Piriniotako mendi irteera egin zuten pasa den asteburuan. Neovielle mendigunean eta Troumouse zirkuan egin zituzten antolatutako bi txangoak. Larunbatean Pic Bastan igo zuten eta igandean,

Pic Gela (irudian). «Pirinioetan hainbat eta hainbat mendi daude hiru mila metrotar iristen ez direnak, baina bere edertasunarengatik hirumilakoen inbidia eduki behar ez luketenak, eta horietako bi igotako mendiak dira», esan dute. HITZA

Agurak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

AGURRAK
943-65 56 95 tolosaldean@hitza.info

agurak



sarrerak

HITZAK harpidedunentzat **4 afari pare** ditu



16. GARAGARDO
AZOKA

Irrinti elkartearen eskutik
Amasa-Villabonan
Txermingo Ikastolaren azpian
18:00etatik aurrera

